

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

NARRATIVA EUSKERA 14-16 AÑOS
SEGUNDO PREMIO

Ikusi ezin diren koloreak. Itsu baten bizipenak Oihana Abasolo Pérez

Esaidazu, Miren, zein da zure lehen oroitzapena? Eta orduan denek zera pentsatzen dute: “beltza”. Baina oker dira, itsu izate hutsak ezer ez ikustea dakarrelako. Laburbiduz, ez dut deus ikusten. Ez dut inoiz ikusi kolore beltza, ez dakit nolakoa den. Orduan denek esanen didate: “beltza iluna da”. Ez baitute ulertzen nik ez dakidala nolakoa den iluna den zerbait. Erran daiteke ezereza dela nire begiek ikusten dutena. Baina orain esandakoa haientzat ulergaitza da.

Nire lehen oroitzapenak nire amarenak dira. Fereka goxo eta samurrak, Mikel Laboaren “Txoria txori” abesten didalarik. Kantuak hala esaten du: “Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez zuen alde egingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango...” Orduan, ohartu egiten naiz maiz honela sentitzen naizela. Jendarte honetatik kanpo, kaiola txiki batean, kalean ezagutzen ez dudanaren beldur naizen bitartean. Edo gutxienez, hau da abestiak niri helarazten didana. Baina tripako minak sendagai bat duen bezala, nik ere badaukat nirea. Ito sentitzen naizen une oro nire amaren eskua nirea zelan hartzen duen sentitzen baitut; eta ulertuko den bezala, hori da nire sendagai eta lasaigarria. Une zehatz horretan, nire arazo guztiak desagertzen dira, lasai naiz. Kaiolatik atera den txoriaren antzera, aske sentitzen naiz, aske naiz.

“Izan ahal dezake esanahi bat ezagutzen ez dugun zerbaitek gugan?”

Txikitan gehienek galdetu diote bere maistrari: nola sortu da unibertsoa? Eta berak erantzuten du: “Duela hamalau milioi urte gertatutako Big Bang eztanda handiarengatik”. Haurrak orduan badaki unibertsoa eztanda baten ondorioz sortu zela, baina ez daki nolakoa izan zen leherketa hura. Hau da, badaki gertatu zen zerbait zela baina ez daki bere osotasunean zer den, ez baitu inoiz bere begiz ikusi. Niri, aldiz,

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

antzeko zerbait gertatzen zait kolore bat zer den galdetu egiten dudan edo didaten aldi oro. Koloreak diren zerbait dagoela dakit, baina ez ditudanez inoiz ikusi, era berean ez dakit zer diren.

Betidanik elkarrizketa aunitz izan ditut gai honen inguruan nire klasekideekin. Lehena Lide izeneko nire amaren lagun baten alabarekin izan zen, duela zortzi urte inguru.

—Horia eguzkia. Gorria odola. Berdea belarra. Urdina itsasoa eta zerua —nire adineko haur bat zen, koloreak zer diren niri azaltzen saiatzen. Nahiz eta jakin ez zutela ezertarako balio bere azalpenek, oso erne entzuten nuen esaten zidan guztia.

—Lide, ba ahal dira kolore gehiago? —niretzako ezezaguna zenak (sentitu, ukitu eta usaindu ezin nuena) miresmen eta jakin-min handia pizten zuen nire bederatzi urteko haurraren.

—Bai! Baita munduko kolore guztiak hartzen dituen ortzadar bat ere —aho bete hortz entzuten nuen. Dinosaurio eta maitagarriei buruz hitz egiten dioten haur bat bezala.

—Esaidazu, Lide, zer dira zuretzako koloreak? —ohartu gabe nire ahotik atera zen hainbestetan pentsatu nuen galdera. Beti galdetzen bainion nire buruari: “zer izanen dira koloreak ikus ditzaketentzat?”

—Triste naizenean iluntasunetik ateratzen naute —orduan nik galdetu nahi nion “eta zer da zuretzat iluntasuna?” Baina lotsa ematen zidan berarentzat hain zentzuduna eta argia zen zerbait niretzako ulergaitza zela onartu behar izate hutsak—. Eta, Miren, zuretzako zer dira koloreak?

Egunak eman nituen niretzako erantzunik ez zuen galdera horren erantzun baten bila. Une oro galdetzen nion nire buruari: “Zer dira niretzako koloreak?” Are gehiago, izan ahal dezake esanahi bat ezagutzen ez dugun zerbaitek gugan? Astebete beranduago Liderekin geratua nintzen berriro.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

—Esaidazu, Miren, erantzuna aurkitu al diozu astebete lehenago egin nizun galderari?
—nire erantzunaren irrikitan zegoela iragarri nezakeen bere tonu alai eta bihurrian—. Zer dira zuretzako koloreak?

—Zuk nik ikusi ezin dudana ikusten ez duzun bezala niretzako dira ikusi ezin diren koloreak —ustekabeen erantzuna aurkitu nion hainbestetan pentsatu nuen galderari. Alegia, argi neukan berak ez ziola zentzurik aurkitzen nik esandakoari. Baina ez zidan inoiz deus esan.

“Hainbat esparrutan guztiok garaitsuak”

Oraindik gogoan dut etxera oso triste eta erdi negarrez iritsi nintzen egun hura, itsu ez nuela izan nahi garrasika nintzelarik. Mutiko batzuek nire kontura barre egin zutelako, ikusi ezin nuela eta. Masailetik lehenengo malkoa erori zitzaidanean, ama niregana hurbildu eta hala esan zidan: “hainbat esparrutan guztiok garaitsuak”. Eta era berean, esan zidan ikusi zezaketen batzuk, haien egunerokotasunean, ni baino itsuagoak zirela. Hasiera batean ez nion ulertu esandakoa, baina denborarekin ulertu egin dudalakoan nago. Ni itsua naiz, bai, baina norbait gaizki pasatzen ari dela iragar dezaket. Beste batzuk aldiz, haien inguruan dauden arazoan aurrean itsuak dira. Edo hobeto esanda, itsuak egiten dira. Batzuetan errazagoa baita ez ikustea etsai edo arazoari aurre egitea baino. Maite duzunagatik borrokatzen zarenean irabazten duzun beste sufritzen ahal duzulako.

“Batzuetan, laguntza behar ez zenukeela sinestarazi dizutenean, ausartena laguntza onartzea da” —Alexandra Bracken.

Betidanik, kalera ama edo aitarekin batera ateratzen nintzen, beldurra ematen baitzidan bakarrik nintzelarik ezagutzen ez nuen zerbaitekin topatzeak. Nire ustez,

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

pertsonok beti izaten diogu beldur ezezagunari. Bakarrik atera nintzen lehen aldiz, beldur eta urduri nintzen; habia utzi berri eta mundu berri bat esperoan duen txoria bezala, ohatzean eroso gara eta asko kostatzen zaigu erosotasun hartatik ateratzea. Betiko ibilbidea nahiko lasai igaro nuen, arazoa errepidera iristean hasi zen. Halako batean ohartu nintzen ez nekiela noiz pasatu ahal nezakeen errepidea, ez nekien noiz zegoen berde ez gorri. Ezustean, emakume bat hurbildu zitzaidan laguntza behar nuen galdezka, seguruenik nire ondoeza eta kezka nabaritu egin zituen. Era berean, nik nahi izanez gero, zebra-bidea igarotzen lagunduko zidala esan zidan. Baina gure harrotasuna atzean utzi eta laguntza onartzea kostatu egiten zaigu; horrenbestez, guztiok egin dezakegun akatsa egin nuen: laguntza ez onartzea. Emakumearen urrats arinak nigandik nola aldentzen ziren sentitu nezakeen; orduan, halako batean, nire gorputza bakarrik mugitu egin zen emakumearen bila. Itsumustuan, emakumearen berokia aurkitu nuen nire atzamarren artean. Berak irri egin zuen, eta ezer esan barik eskutik heldu ninduen eta elkarrekin igaro genuen bide-gurutzea.

“Nik eskuetan dauzkat begiak”

Kanpaldi batean, ni bezalako zen haur batekin topatu nintzen; hau da, itsua zen. 11 urteko mutiko bat zen, Markel zuen izena. Elkarrekin ematen genuen goiz eta arratsalde osoa, jolas eta berriketetan. Egun batean, lorategira joan ginen, loreen usain goxo eta freskoa usaintzeko asmoarekin.

—Markel, ez dakit zuk, baina bere funtzioa betetzen dituzten begiak izatea gustatuko litzaidake.

—Gure begiek ez ikustea ez du esan nahi bere funtzioa betetzen ez dutenik.

—Nik ikusi nahi dut —banekien ez zuela ezertarako balio hura esateak, baina Markel ulertu nezakeela iruditu zitzaidan—. Ikusi nahi nituzke besteentzako hain politak eta koloretsuak diren lore hauek.

—Miren, nik zuk bezala eskuetan dauzkat begiak. Begietatik ikusi ezin dugun arren, eskuetatik ikus dezakegu.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

“Norberaren autoezagutzak eramango gaitu geure burua maitatzera”

Jada hemeretzi urte dauzkat, eta nire burua den bezalakoa onartzen dut. Nire bizitzan zehar bizi izan ditudan pasarte gehienetan akatsak eta erabaki okerrak hartu ditut; baina horiei guztiei esker ikasi dut nire burua maitatzen. Bai, itsua naiz, badakit. Baliteke begietatik ezin ikustea, baina nik ere irudikatu eta somatu ditzaket nire begiek ikusi ezin ditzaketen gauzak; nahiz eta beste era batera izan. Nik, zuek ez bezala, eskuetatik, sudurretik, eta nire bi belarrietatik ikus dezaket. Eta batzuen ustez egia ez izan arren, batez ere, bihotzetik ikusten dut. Printze txikiak dioen bezala: “Hona hemen nire sekretua, sinpleagoa ezin dena izan: bihotzarekin bakarrik ikusi daiteke ongi, funtsezkoena begientzat ikusezina baita”.